

Convención suplementaria sobre la abolición de la esclavitud, la trata de esclavos y las instituciones y prácticas análogas a la esclavitud

Adoptada por una Conferencia de Plenipotenciarios convocada por el Consejo Económico y Social en su resolución 608 (XXI), de 30 de abril de 1956

Hecha en Ginebra el 7 de septiembre de 1956

Entrada en vigor: 30 de abril de 1957, de conformidad con el artículo 13

Preambulo

Los Estados Partes en la presente Convención,

Considerando que la libertad es un derecho innato de todo ser humano,

Conscientes de que los pueblos de las Naciones Unidas han reafirmado en la Carta su fe en la dignidad y el valor de la persona humana,

Considerando que la Declaración Universal de Derechos Humanos, proclamada por la Asamblea General como ideal común que todos los pueblos y naciones han de realizar, afirma que nadie estará sometido a esclavitud ni a servidumbre y que la esclavitud y la trata de esclavos están prohibidas en todas sus formas,

Reconociendo que desde que se concertó en Ginebra, el 25 de septiembre de 1926, el Convenio sobre la Esclavitud, encaminado a suprimir la esclavitud y la trata de esclavos, se han realizado nuevos progresos hacia ese fin,

Teniendo en cuenta el Convenio sobre el Trabajo Forzoso, de 1930, y las medidas adoptadas después por la Organización Internacional del Trabajo

Esklabotza, esklaboen salerosketa eta esklabotzaren antzeko erakundeak eta eginerak ezabatzeari buruzko Konbentzio osagarria

Ahalguztidunen Konferentziak onetsia, konferentzia hori Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak, 1956. urteko apirilaren 30eko 608 (XXI) ebazpenean deitu zuela

Genevan egin, 1956. urteko irailaren 7an

Indarrean jartzea: 1957ko apirilaren 30ean, 13. artikuluaekin bat etorriz.

Atarikoak

Konbentzio honen estatu alderdiek,

Kontuan harturik askatasuna gizaki ororen berezko eskubidea dela,

Jakitun izanik Nazio Batuen herriek gizakien duintasun eta balioan duten fedea Gutunean berretsi dutela,

Kontuan harturik Biltzar Orokorrak aldarrikatu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala dela herri eta herrialde guztiek asmo erkide hartu behar dutena, eta adierazpen horretan berresten dela esklabotzaren edo murruntzaren menpe inor ez dela egongo, eta esklabotza eta esklaboen salerosketa forma guztiak debekatuta daudela,

Aitortuz, esklabotza eta esklaboen salerosketa ezabatzera bideratutako Esklabotzari buruzko Hitzarmena, 1926. urteko irailaren 25ean, Genevan egin zenetik, helburu horrekin hainbat aurrerapen egin direla,

Kontuan izanik 1930eko Derrigorrezko Lanari buruzko Hitzarmena, eta geroago derrigorrezko eta nahitaezko lanaren inguruan Lanaren Nazioarteko

en materia de trabajo forzoso u obligatorio,

Advirtiendo, sin embargo, que la esclavitud, la trata de esclavos y las instituciones y prácticas análogas a la esclavitud no han sido aún suprimidas en todas las partes del mundo,

Habiendo decidido, por ello, que el Convenio de 1926, que continúa en vigor, debe ser ampliado ahora por una convención suplementaria destinada a intensificar los esfuerzos nacionales e internacionales encaminados a abolir la esclavitud, la trata de esclavos y las instituciones y prácticas análogas a la esclavitud,

Han convenido en lo siguiente:

SECCION I. -- INSTITUCIONES Y PRACTICAS ANALOGAS A LA ESCLAVITUD

Artículo 1

Cada uno de los Estados Partes en la Convención adoptará todas aquellas medidas legislativas o de cualquier otra índole que sean factibles y necesarias para lograr progresivamente y a la mayor brevedad posible la completa abolición o el abandono de las instituciones y prácticas que se indican a continuación, dondequiera que subsistan, les sea o no aplicable la definición de esclavitud que figura en el artículo 1 del Convenio sobre la Esclavitud, firmado en Ginebra en 25 de septiembre de 1926:

a) La servidumbre por deudas, o sea, el estado o la condición que resulta del hecho de que un deudor se haya comprometido a prestar sus servicios personales, o los de alguien sobre quien ejerce autoridad, como garantía de una deuda, si los servicios prestados, equitativamente valorados, no se aplican al pago de la deuda, o si no se limita su duración ni se define la naturaleza de dichos servicios;

Erakundeak hartutako neurriak,

Ohartaraziz, dena den, esklabotza, esklaboen salerosketa eta esklabotzaren antzeko erakunde eta eginerak ez direla oraindik ezabatu munduaren alde guztietan,

Erabaki da, beraz, 1926. urteko Hitzarmenak, indarrean jarraitzen duenak konbentzio osagarria behar duela orain; izatez, konbentzio hori zuzenduko da esklabotza, esklaboen salerosketa eta esklabotzaren antzeko erakundeak eta eginerak ezabatzeko nazio- eta nazioarte-mailako ahaleginak indartzera,

Hurrengo hitzartu dute:

I. ATALA.- ESKLABOTZAREN ANTZEKO ERAKUNDEAK ETA EGINERAK

1. artikulua

Konbentzioaren estatu alderdi bakoitzak egingarriak eta beharrezkoak diren legegintzazko edo beste edozein izaerako neurriak hartuko ditu, arian-arian eta ahalik eta arinen lortzeko jarraian adieraziko diren erakundeak eta eginerak ezabatzea edo baztertzea, halakoak dauden tokian daudela eta halakoentzat aplikagarria izan ala ez, esklabotzaren definizioa, Esklabotzari buruzko 1926. urteko irailaren 25ean, Genevan sinatutako Hitzarmenaren 1. artikuluan azaltzen duena:

a) Zorren ondoriozko morrontza edo zehatzago, zordunak, zorraren berme gisa, zerbitzu pertsonalak edo zein egon bere aginpidean dagoen beste baten zerbitzuak emateko konpromisoa hartu badu, zorraren berme gisa, baldin eta emandako zerbitzuak, ekitatearen arabera baloratu ondoren, ez badira erabiltzen zorra ordaintzeko, edota zorraren iraupena mugatzen ez bada edota aipatu zerbitzuen izaera

- b) La servidumbre de la gleba, o sea, la condición de la persona que está obligada por la ley, por la costumbre o por un acuerdo a vivir y a trabajar sobre una tierra que pertenece a otra persona y a prestar a ésta, mediante remuneración o gratuitamente, determinados servicios, sin libertad para cambiar su condición;
- c) Toda institución o práctica en virtud de la cual:
- i) Una mujer, sin que la asista el derecho a oponerse, es prometida o dada en matrimonio a cambio de una contrapartida en dinero o en especie entregada a sus padres, a su tutor, a su familia o a cualquier otra persona o grupo de personas;
- ii) El marido de una mujer, la familia o el clan del marido tienen el derecho de cederla a un tercero a título oneroso o de otra manera;
- iii) La mujer, a la muerte de su marido, puede ser transmitida por herencia a otra persona;
- d) Toda institución o práctica en virtud de la cual un niño o un joven menor de dieciocho años es entregado por sus padres, o uno de ellos, o por su tutor, a otra persona, mediante remuneración o sin ella, con el propósito de que se explote la persona o el trabajo del niño o del joven.

Artículo 2

Con objeto de poner fin a las instituciones y prácticas a que se refiere el inciso c) del artículo 1 de la presente Convención, los Estados Partes se comprometen a prescribir, allí donde proceda, edades mínimas apropiadas para el matrimonio, a fomentar la adopción de un procedimiento que permita a cualquiera de los

zehazten ez bada;

- b) Glebako jopuak, hau da, pertsona baten egoera, legez, ohituraz edo erabaki baten ondorioz behartuta dagoenean, beste pertsona baten lurretan bizitzera eta horiek lantzera, eta pertsona horri zerbitzu jakin batzuk ematera, ordainsariaren truke nahiz doanik, bere egoera eraldatzeko askatasunik gabe.
- c) Erakunde edo eginera oro, horren arabera:
- i) Dirutan edo jenerotan egindako ordainaren truke, gurasoek, tutoreak, familiak edo beste edozein pertsonak edota pertsona-taldeak ezkon-hitza eman dezakete emakumearen izenean edo ezkontzeko eman dezake emakumea, horri aurka egiteko bere eskubidea kontuan hartu gabe;
- ii) Emakume baten senarrak, familiak edo senarraren senide-taldeak eskubidea dute emakumea hirugarren bati emateko kostubidez edo beste modu batez;
- iii) Emakumea, senarra hiltzen denean, jarauntsiaren bidez beste pertsona batek bereganatu dezake;
- d) Erakunde edo eginera oro, horien arabera, gurasoek, edo bietako batek, edo tutoreak haurra edo hemezortzi urtetik beherako gaztetxoaren ematen badute, ordainsariaren truke ala ordainsaririk gabe, haurra bera edo gaztetxo bera edo euren lana explotatzeko asmoarekin.

2. artikulua

Konbentzio honen 1. artikulua (c) atalean aipatu erakunde eta eginerekin bukatzeko, estatu alderdiek euren gain hartzen dute, halakoa behar den tokietan, ezkontzeko gutxiengo adin egokiak ezartzea, berebat, prozedura bat sustatzea, ezkonberrietako edozeinek adierazi dezan askatasunez ezkontzeko adostasuna agintari zibila

contrayentes expresar libremente su consentimiento al matrimonio ante una autoridad civil o religiosa competente, y a fomentar la inscripción de los matrimonios en un registro.

SECCION II. -- LA TRATA DE ESCLAVOS

Artículo 3

1. El acto de transportar o de intentar transportar esclavos de un país a otro por cualquier medio de transporte, o la complicidad en dicho acto, constituirá delito en la legislación de los Estados Partes en la Convención, y las personas declaradas culpables de él serán castigadas con penas muy severas.

2. a) Los Estados Partes dictarán todas las disposiciones necesarias para impedir que los buques y las aeronaves autorizados a enarbolar su pabellón transporten esclavos y para castigar a las personas culpables de dicho acto o de utilizar el pabellón nacional con ese propósito;

b) Los Estados Partes adoptarán todas las medidas necesarias para impedir que sus puertos, aeropuertos y costas sean utilizados para el transporte de esclavos.

3. Los Estados Partes en la Convención procederán a un intercambio de información con objeto de conseguir una coordinación práctica de las medidas tomadas por ellos para combatir la trata de esclavos y se comunicarán mutuamente todo caso de trata de esclavos y toda tentativa de cometer dicho delito que lleguen a su conocimiento.

Artículo 4

Todo esclavo que se refugie a bordo de cualquier buque de un Estado Parte en la Convención quedará libre ipso facto.

SECCION III. -- DISPOSICIONES COMUNES A LA ESCLAVITUD Y A

nahiz erlijio agintari eskudunaren aurrean, eta, oro har, ezkontzak erregistro baten inskribatzeko bultzada ematea.

II. Atala ESKLABOEN SALEROSKETA

3. artikulua

1. Esklaboak herrialde batetik bestera garraiatzea edo garraiatzen saiatzea, edo egintza horretan laguntzea, delitu izango da Konbentzioaren estatu alderdien legeriaren arabera, eta errudun adierazi pertsonak zigor zorrotzak jasoko dituzte.

2. Estatu alderdiek beharrezko xedapen guztiak emango dituzte, euren bandera eramateko baimena duten ontzietan eta aireontzietan galarazteko esklaboak garraiatzea, eta egintza hori egiteagatik eta halako asmoarekin bandera nazionala erabiltzeagatik errudunak direnak zigortzeko.

b) Estatu alderdiek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte saihesteko, portu, aireportu eta itsasertza erabiltzea esklaboak garraiatzeko.

3. Konbentzioaren estatu alderdiek elkarrekin trukatuko dute informazioa, esklaboen salerosketa eragozteko hartutako neurrien koordinazio baliagarria lortzeko helburuarekin, eta elkarri jakinaraziko dizkie esklaboen salerosketa kasu guztiak eta halako delitua egiteko saio guztiak, horien berri dutenean.

4. artikulua

Konbentzioaren estatu alderdi baten ontzian babesten den esklabo oro ipso facto aske geratuko da.

III. Atala ESKLABOTZA ETA ESKLABOTZAREN ANTZEKO

LAS INSTITUCIONES Y PRACTICAS ANALOGAS A LA ESCLAVITUD

Artículo 5

En cualquier país donde la esclavitud o las instituciones y prácticas mencionadas en el artículo 1 de esta Convención no hayan sido completamente abolidas o abandonadas, el acto de mutilar o de marcar a fuego, o por otro medio, a un esclavo o a una persona de condición servil -- ya sea para indicar su condición, para infligirle un castigo o por cualquier otra razón --, o la complicidad en tales actos, constituirá delito en la legislación de los Estados Partes en la Convención, y las personas declaradas culpables incurrirán en penalidad.

Artículo 6

1. El hecho de reducir a una persona a esclavitud, o de inducirla a enajenar su libertad o la de una persona dependiente de ella para quedar reducida a esclavitud, la tentativa de cometer estos actos o la complicidad en ellos o la participación en un acuerdo para ejecutarlos, constituirán delito en la legislación de los Estados Partes en la Convención y las personas declaradas culpables de ellos incurrirán en penalidad.

2. A reserva de lo establecido en el párrafo primero del artículo 1 de la Convención, las disposiciones del párrafo 1 del presente artículo se aplicarán también al hecho de inducir a una persona a someterse o a someter a una persona dependiente de ella a un estado servil que resulte de cualquiera de las instituciones o prácticas mencionadas en el artículo 1, así como a la tentativa de cometer estos actos, o la complicidad en ellos, y a la participación en un acuerdo para ejecutarlos.

SECCION IV. -- DEFINICIONES

ERAKUNDE ETA EGINEREI BURUZKO XEDAPEN ERKIDEAK

5. artikulua

Konbentzio honen 1. artikuluan aipatu esklabotza edo erakunde eta eginerak oso-osorik ezabatu edo baztertu ez diren edozein herrialdetan, esklabo bat edo morroi-izaerako pertsona baten organoak moztea edo suarekin, edo beste baliabide bat erabilita markatzea --bere izaera adierazteko, zigorra ezartzeko edo beste edozein arrazoiengatik--, edo delako egintzetan parte hartzea delitu izango da Konbentzioaren estatu alderdien legeriaren arabera, eta errudun diren pertsonen zigorra jasoko dute.

6. artikulua

1. Pertsona bat esklabo bihurtzea, edo pertsona hori bultzatzea bere askatasuna edo bere menpe dagoen pertsonarena besterentzera, esklabo bihurtu arte, edo egintza horiek egiten saiatzea edo laguntzea edo horiek gauzatzeko erabakian parte hartzea, delitu izango dira Konbentzioaren estatu alderdien legeriaren arabera, eta errudun diren pertsonen zigorra jasoko dute.

2. Konbentzio honen 1. artikulua lehengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, artikulua honen 1. paragrafoaren xedapenetan barruratuko dira, halaber, pertsona batek bere burua edo bere menpe dagoen beste pertsona bat bultzatu izana, nora eta 1. artikulua aipatu erakunde eta egineretatik eratorritako morroi-egoera batera, eta, oro har, tenore horretako egintzak egiteko ahalegina, edo halakoak egiten laguntzea edota halakoak gauzatzeko adostasun batean parte hartzea.

IV. ATALA DEFINIZIOAK

Artículo 7

A los efectos de la presente Convención:

- a) La "esclavitud", tal como está definida en el Convenio sobre la Esclavitud de 1926, es el estado o condición de las personas sobre las que se ejercen todos o parte de los poderes atribuidos al derecho de propiedad, y "esclavo" es toda persona en tal estado o condición;
- b) La expresión "persona de condición servil" indica toda persona colocada en la condición o estado que resulta de alguna de las instituciones o prácticas mencionadas en el artículo 1 de la Convención;
- c) "Trata de esclavos" significa y abarca todo acto de captura, de adquisición o de disposición de una persona con intención de someterla a esclavitud; todo acto de adquisición de un esclavo con intención de venderlo o de cambiarlo; todo acto de cesión por venta o cambio de una persona, adquirida con intención de venderla o cambiarla, y, en general, todo acto de comercio o de transporte de esclavos, sea cual fuere el medio de transporte empleado.

SECCION V. -- COOPERACION ENTRE LOS ESTADOS PARTES Y TRANSMISION DE INFORMACION

Artículo 8

1. Los Estados Partes en la Convención se comprometen a cooperar entre sí y con las Naciones Unidas para dar cumplimiento a las anteriores disposiciones.
2. Los Estados Partes se comprometen a transmitir al Secretario General de las Naciones Unidas ejemplares de todas las leyes, reglamentos y disposiciones administrativas promulgados o puestos en vigor para dar efecto a las

7. artikulua

Konbentzio honen ondorioetarako:

- a) "Esklabotza" da, 1926ko Esklabotzari buruzko Hitzarmenak definitzen duenaren arabera, jabetza-eskubideari egotzitako ahalmen guztiak edo batzuk zein norbanakoren gainean egikaritu eta gizaki horien egoera eta baldintza, eta "esklaboa" da egoera edo baldintza horretan dagoen gizaki oro;
- b) "Morroi-izaerako norbanakoa" esamoldeak hauxe adierazten du: Konbentzioaren 1. artikulua aipatu erakunde edo egineretako batetik eratorritako baldintza edo egoeran dagoen norbanako oro;
- c) "Esklaboen salerosketa" esamoldeak esan nahi du eta biltzen ditu honako egintzak: norbanakoa atzematea, eskuratzea edo eskualdatzea esklabotzapean jartzeko asmoarekin; esklabo bat erosteko egintza oro, gerogarrenean saltzeko edo trukatzeko; bide beretik, xede horietarako eskuratutako esklaboa xedeok gauzatzeko lagatze-egintza oro, eta, berebat, esklaboen salerosketa- eta garraio-egintza oro, edozein delarik horretarako erabiltzen den garraio-bidea.

V. ATALA.- ESTATU ALDERDIEN ARTEKO LANKIDETZA ETA INFORMAZIOA IGORTZEA

8. artikulua

1. Konbentzioaren estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute euren artean eta Nazio Batuekin lankidetzan aritzeko aurretiazko xedapenak bete ditzaten.
2. Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute Nazio Batuen Idazkari Nagusiari helarazteko lege, erregelamendu eta administrazio-xedapenen aleak, Konbentzio honen xedapenen ondorioetarako aldarrikatu

disposiciones de la Convención.

3. El Secretario General comunicará los datos recibidos en virtud del párrafo 2 a los demás Estados Partes y al Consejo Económico y Social como elemento de documentación para cualquier examen que el Consejo emprenda con el propósito de formular nuevas recomendaciones para la abolición de la esclavitud, la trata de esclavos o las instituciones y prácticas que son objeto de la Convención.

SECCION VI. -- DISPOSICIONES FINALES

Artículo 9

No se admitirá ninguna reserva a la presente Convención.

Artículo 10

Cualquier conflicto que surja entre los Estados Partes en la Convención respecto a su interpretación o a su aplicación, que no pueda ser resuelto por negociación, será sometido a la Corte Internacional de Justicia a petición de cualquiera de las Partes en conflicto, a menos que éstas convengan en resolverlo en otra forma.

Artículo 11

1. La presente Convención estará abierta a la firma de cualquier Estado Miembro de las Naciones Unidas o de los organismos especializados hasta el 1. de julio de 1957. Quedará sometida a la ratificación de los Estados signatarios, y los instrumentos de ratificación serán depositados en poder del Secretario General de las Naciones Unidas, que los comunicará a todos los Estados signatarios de la Convención o que se adhieren a ella.

2. Después del 1. de julio de 1957, la Convención quedará abierta a la adhesión de cualquier Estado Miembro de las Naciones Unidas o de un

eta indarrean jarri direnak.

3. Idazkari Nagusiak gainerako estatu alderdiei eta Ekonomia- eta Gizarte-Kontseiluari jakinaraziko dizkie jasotako datuak, 2. paragrafoaren arabera. Datu horiek baliatuko dira dokumentazio gisa, kontseiluak hasi dezakeen edozein azterketarako, horien helburua bada gomendio berriak egitea esklabotza, esklaboen salerosketa edota Konbentzioaren objektu diren erakundeak edo eginerak ezabatzearen inguruan.

VI. ATALA AZKEN XEDAPENAK

9. artikulua

Ez da onetsiko Konbentzio honi egindako inolako erreserbarik.

10. artikulua

Konbentzioaren interpretazioari edo aplikazioari dagokionez, estatu alderdien artean sortzen den edozein gatazka, negoziazioaren bidez konpondu ezin daitekeena, Nazioarteko Justizia Gortearen mende utziko da, gatazkan dauden alderdietako edozeinek hala eskatuta, betiere, horiek gatazka beste modu batean konpontzea erabaki ez badute.

11. artikulua

1. Konbentzio hau Nazio Batuen edo erakunde espezializatuen edozein estatu kidek sinatu ahal izango du, 1957. urteko uztailaren 1era arte. Estatu sinatzaileen berrespenaren menpe geratuko da, eta berrespen-agiriak Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren menpe geratuko dira, horrek gordailutu ditzan eta horien berri eman diezaien konbentzioaren estatu sinatzaileei edo konbentzioari atxikimendua eman dienei.

2. 1957. urteko uztailaren 1etik aurrera, Konbentzio honi Nazio Batuen edo erakunde espezializatuaren edozein estatu kidek atxikimendua eman ahal

organismo especializado, o a la de cualquier otro Estado a quien la Asamblea General de las Naciones Unidas haya invitado a adherirse a la Convención. La adhesión se efectuará depositando un instrumento en debida forma en poder del Secretario General de las Naciones Unidas, que lo comunicará a todos los Estados signatarios de la Convención o que se adhieren a ella.

Artículo 12

1. La presente Convención se aplicará a todos los territorios no autónomos, en fideicomiso, coloniales y demás territorios no metropolitanos cuyas relaciones internacionales estén encomendadas a cualquiera de los Estados Partes; la Parte interesada, en el momento de la firma, de la ratificación o de la adhesión, y a reserva de lo dispuesto en el párrafo 2 del presente artículo, deberá indicar el territorio o los territorios no metropolitanos a los que la Convención se aplicará ipso facto como resultado de dicha firma, ratificación o adhesión.

2. Cuando, en virtud de las leyes o prácticas constitucionales del Estado Parte o del territorio no metropolitano, sea necesario el consentimiento previo de un territorio no metropolitano, la Parte deberá procurar obtener el consentimiento del territorio no metropolitano dentro de los doce meses siguientes a la fecha en que el Estado metropolitano haya firmado la Convención, y, cuando lo haya obtenido, lo notificará al Secretario General. La Convención se aplicará al territorio o a los territorios mencionados en dicha notificación desde la fecha en que la reciba el Secretario General.

3. A la terminación del plazo de doce meses mencionado en el párrafo anterior, los Estados Partes interesados

izango dio, eta, oro har, edozein estatuk, Nazio Batuen Biltzar Orokorrek Konbentzioari atxikitzeke gonbitea luzatu badio. Atxikimendua gauzatuko da horretarako instrumentua Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren esku utzita, horrek gordailutu dezan. Idazkari Nagusiak emango die horren berri Konbentzioaren estatu sinatzaile guztiei edo berorri atxikimendua ematen diotenei.

12. artikulua

1. Konbentzio hau aplikatuko zaie autonomiarik gabeko lurraldeei, zainpeko lurraldeei, koloniei eta metropoliak besteko gainerako lurraldeei, horien nazioarteko harremanen ardura edozein estatu alderdik badu; alderdi interesdunak, sinadura-, berrespen- edo atxikimenduan, eta artikulua honen 2. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, adierazi beharko du metropoliak besteko zein lurralde bakan edo batzuetan aplikatuko den ipso facto Konbentzioa, aipatu sinadura, berrespen edo atxikimenduaren ondorioz.

2. Estatu alderdiaren edo metropoliak besteko lurraldearen lege- edo konstituzio-egineren arabera, behar-beharrezkoa bada metropoliak besteko lurraldearen aurretiazko baimena, orduan alderdiak baimen hori lortu beharko du metropoliaren estatuak Konbentzioa sinatu eta hurrengo hamabi hilabeteko epean, eta halakoa lortu duenean, idazkari nagusiari jakinaraziko dio. Konbentzioa jakinarazpen horretan aipatu lurraldeari edo lurraldeei aplikatuko zaie, idazkari nagusiak jakinarazpena jasotzen duen datatik aurrera.

3. Aurreko paragrafoan aipatu hamabi hilabeteko epea amaitu eta gero, estatu alderdi interesdunek geroago zehazten

comunicarán al Secretario General el resultado de las consultas con los territorios no metropolitanos cuyas relaciones internacionales les estén encomendadas y que no hubieren dado su consentimiento para la aplicación de la Convención.

Artículo 13

1. La presente Convención entrará en vigor en la fecha en que sean Partes en ella dos Estados.
2. La Convención entrará luego en vigor, respecto de cada Estado y territorio, en la fecha de depósito del instrumento de ratificación o de adhesión de ese Estado o de la notificación de su aplicación a dicho territorio.

Artículo 14

1. La aplicación de la presente Convención se dividirá en períodos sucesivos de tres años, el primero de los cuales empezará a contarse a partir de la fecha en que entre en vigor la Convención, según lo dispuesto en el párrafo 1 del artículo 13.
2. Todo Estado Parte podrá denunciar la Convención notificándolo al Secretario General seis meses, por lo menos, antes de que expire el período de tres años que esté en curso. El Secretario General informará a todos los demás Estados Partes acerca de dicha notificación y de la fecha en que la haya recibido.
3. Las denuncias surtirán efecto al expirar el período de tres años que esté en curso.
4. En los casos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12, la Convención se haya hecho aplicable a un territorio no metropolitano de una Parte, ésta, con el consentimiento del territorio de que se trate, podrá, desde entonces, notificar en cualquier

diren lurraldeetan egindako kontsulten emaitzak Idazkari Nagusiari jakinaraziko dizkiote; lurralde horiek dira metropoliaz besteko lurraldeak, bertan alderdi interesdunak duela nazioarteko harremanen ardura, betiere, lurralde horiek Konbentzioa aplikatzeko baimena eman ez badute.

13. artikulua

1. Konbentzio hau indarrean jarriko da bi estatu berorren alderdi egiten diren datan.
2. Konbentzio hau indarrean jarriko da, Estatu eta lurralde bakoitzari dagokionez, estatu horren berrespen-edo atxikimendu-instrumentuaren gordailu-datan edota lurralde horri ezarriko zaiolako jakinarazpen-datan.

14. artikulua

1. Konbentzio honen aplikazioa elkarren segidako hiru urteko aldietan banatzen da, horietako lehenengoa Konbentzioa indarrean jartzen den datatik zenbatzen hasten da, 13. artikuluaaren 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera.
2. Estatu alderdi orok sala dezake Konbentzioa, Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez, aribidean dagoen hiru urteko aldia bete baino sei hilabete lehenago, gutxienez ere. Idazkari Nagusiak gainerako estatu alderdi guztiei informazioa emango die jakinarazpenaren inguruan, barne hartuta jakinarazpenaren jasotze-data.
3. Salaketek aribidean dauden hiru urteko aldia amaitu ondoren sortuko dituzte ondorioak.
4. 12. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, Konbentzioa alderdi baten metropoliaz besteko lurralde bati aplikatu behar zaionean, alderdi horrek, kasuan kasuko lurraldearen baimenarekin, une horretatik eta edozein unetan jakinarazi ahal izango

momento al Secretario General de las Naciones Unidas que denuncia la Convención por lo que respecta a dicho territorio. La denuncia surtirá efecto un año después de la fecha en que haya sido recibida la notificación por el Secretario General, quien informará de dicha notificación y de la fecha en que la haya recibido a todos los demás Estados Partes.

Artículo 15

La presente Convención, cuyos textos chino, español, francés, inglés y ruso son igualmente auténticos, será depositada en los archivos de la Secretaría de las Naciones Unidas. El Secretario General extenderá copias certificadas auténticas de la Convención para que sean enviadas a los Estados Partes, así como a todos los demás Estados Miembros de las Naciones Unidas y de los organismos especializados.

EN TESTIMONIO DE LO CUAL los infrascritos, debidamente autorizados por sus respectivos Gobiernos, han firmado la presente Convención en las fechas que figuran al lado de sus respectivas firmas.

HECHA en la Oficina Europea de las Naciones Unidas, Ginebra, a los siete días de septiembre de mil novecientos cincuenta y seis.

dio Nazio Batuen Idazkari Nagusiari Konbentzioa salatzen duela, lurralde horri dagokionez. Salaketak Idazkari Nagusiak jakinarazpenak jasotako datatik urte betera sortuko ditu ondorioak, eta Idazkari Nagusiak informazioa emango die gainerako estatu alderdiei jakinarazpenaren inguruan, barne hartuta jakinarazpen jasotze-data.

15. artikulua

Konbentzio hau, Nazio Batuen Idazkaritzaren artxiboetan gordailutuko da; berebat, kautoak izango dira txineraz, espainieraz, frantsesez, ingelesez eta errusieraz dauden testuak. Idazkari Nagusiak Konbentzioaren kopia ziurtatu kautoak luzatuko ditu estatu alderdiei igortzeko, eta baita Nazio Batuen eta erakunde espezializatuen gainerako estatu kideei.

HORI GUZTIORI AITORTUZ, behean sinatzen dutenek, kasuan kasuko gobernuak behar bezala baimenduta, konbentzio hau sinatu dute bakoitzaren sinaduraren alboan agertzen diren datetan.

Genevan EGINA, Nazio Batuen Europako bulegoan, mila bederatzehun eta berrogeita hamaseigarren urteko irailaren zazpian